

PAKEAREN ONDASUNAK

ETA

GUDAREN GALERAK

PAKEA ¿ZER OTE DA GERO?

— ¡Ago pakean!, esaten dio amak bere ume biurriari. Geldi egoteko agindu dio. Pakea ¿geldi egotea ote da ba?

Lurbira ez dago geldi: eguzkiaren jiran dabill, egunero jira borobill bat eta urtero zearkako beste jira bat egiten.

Ludi'ko gauzarik ezertxo ere ez dago geldi: giza-osasuna odol urdail, birika, beazun, gibel, biotz, gultxurdiñ..... ezur-mamikiak beren eraz eta abagunez ongi ibiltzen datza. Gizonak, bizitzekotan lan egin bear du: lanak etekiña, obaria dakar eta lan egiteko geldirik ezin egonba.

Ura edo uia bai-dabil: geldi, igitzeke (mogitzeke) balego, ustela litzake laister, kirasgarri. Zuaitzak leku berean egon arren bai-dabiltze eren barru-muñ, izerdi ta abar, ibiltze orrek ador, besanga, osto, aye-mak..... azitzen ditularik.

Meatza (mina), arriaren izatea trukatzea, aldatzea besterik ez da.

Laburkiro. Ludi'ko kaki guziak bizi dira, ta bizi dan guzia, bai-dabill.

*
* *

Eriotza, berriz, ez bizitzea da. Guda eriotza da, pakea bizia dan bezelaxe.

Pakea ta guda aurkaz (elkarren kontra), bizia ta eriotza aurkaz agerzteza lez dira.

PAKEA IZATEKO ¿ZER BEAR DA ORDEA?

Zuzen dauden gauzak, pakean dabilltz. Zuzentasunak eta pakeak elkarri musu ematen diote. Idazti Deunak (Eskritura Santak) dionez: *Justitia et pax osculatæ sunt.*

Gauzak beren lerrotik, beren eratik ez dira ateratzen, giza-zentzuna zuzen dabillen bitarte. Pakearen etsaya, gizonaren arerioa griña likitsa da beraz: gurari okerra ta adimen zuzena burrukan jartzen diralarik, gurari zitala garaile irtetzen bada pakerik edo gentzarik ez dago; zuzentasuna biurritu da ta gudaskak bere kopeta beltza darakus (erakusten du).

Gudaren ugaz-ama gorrotoa da, ta gorrotoa sortzen da arrokeritik, adimena illuntzetik.

—¡I aña banauk ni: ire gauzak neretu bear zetiak ni indartsuago nauk eta!

Orra, gudaren irrintzi ausarditsua, zentzun gabetasuna. Zuzen ez-dabillenenaren gosekeria.

NOR BERAREN BIOTZEKO PAKEA

Gogo-almenak (animaren potenziak) elkartasun ta donario ederraz dabiltzenian, pake atsegiña dauka gizonak. Eta gizonek elkar ongi ta bidez maitatzen dute, eren naimen batze ori zuzena ta ongille danean.

Gizonak ditu bi gurari, bi eresi edo egarri: adimen-zentzun argiaren eskaria edo naya, ta gurari edo griña likitxaren egarria. Barrenengo egarri lizunak goiko adimenaren begira egon bear du; adimenak, zerutikako sinismenaren mende. Onela, eresi bakoitza bere mallan edo koskan dagolarik abagun-pakea biotzaren jabe egiten da.

Pakea austen da, lagun urkoaz edo geideaz bat ezguazenean, gure almen barrukoak eren kiria ta eiña (orden y konzierto) galtzen dute-nian, zalekeri lizunak gaingirotzean, naimena adimenaren gaiñerik, guraria naimenaren goitik jartzen diranian.

Onkia da pakearen oiña. Ongi ta zuzen gauzak maite diranean, pakea da nagusi.

Bañan, ludian erabateko pakerik ez diteke egon; dirua, algoa (poder), osasuna atsegiña ta oster ontzeko ogasunak esku batzuetan dandean, bestien eskuetan bako edo mens (palta) izaten dira-ta.

Gauzarik ez daukenak inñartsi (enbidia) dio gauzadunari; naimena jeikitzen da adimenaren kaltez eta barrua naspillatzen, irabiatzen, azal-datzen da irakiten jartzeraño.

Barrua guda nasian dábill orduan.

PAKEAREN URTXILLOAK EDO EUSLEAK

Onaroak (karidad) sortzen da pakea. Jainkoa'ren legea gorde nai dunak, inñori kalterik ez dio egin bear. — Besteak aundigo, aberatzago, ederrago, algotsugo..... dirala? — Bai ainbat; izan bitez: ni ere alegin-duko naiz igotzen, bañan bide zuzenetik; zintzo, langille izan-ta.

Nik nai det Jaikoak nai duna, ta Jainkoak batzuk baño bestek gorago jartzen ditu. Ludiko oker guziak «irea ta nere» itzetik sor-tzendira.

¿Zer da baño «nere»? Nik inñori gezurrik ezan gabe, lan eginetik (lan zuzena) ateratzen detan erekiña. Eta ¿zer da «irea»? Nere ez dan guzia.

Gizonaren ondarena izaten da bestien gañetik jarri nai izatea: daukenak, gorago jarri nai izaten du; ta ortarako inñor zapaldu, mende-ratu egin bear, naiz lege-zuzena ausi t'eten.

Bakoizkeria, nor beraren uste aundigia pake-urruti izaten da. Bere burua geyegi maite dunak, errez, uste izaten du bestek miñ eman diola, ta gurari beltz-arroa jarkotzen da zentzunaren aurkaz.

Biotz onekua, Jainkotia, eramankor, jasale (paziente) azaten da, ta inñoren utsegiriak aisa estaltzen ditu: orrek gurari likitsak esku-men-dean dauzka.

«Neri ikasi zaidazute otxan ta biotz-apalti izaten, zeon goguetan pakea izatea nai badezute», esan zigun Josu-Kristok.

Pakerik ezditeke izan gizon apala izaten (umilla) ta bere griña zan-tarrak ezitzen ta beratzen (domar) sayatzen ezpada.

BARRUKO PAKEAREN ONDOREN GOZAGARRIAK

Akino'tar Tomas Deun jakintsurik jakintzuenak dionez, barruko giza-pakeak itzaltzen edo amatatzen ditu gure atsedena galtzen duten iduripen zalapartatsu, eresi geyegizko ta naskunde urduri oyek.

—¡Leku goren ori arrapauko banu! Arazo onetan ondo irtengo ba-nitz! Onelako irrikiak barruko pakea adelatzen edo ayenatzen digute.

Egiazko gentzak (pakeak) atsedena beardu lagun, Agustin Deunak datsanez.

Atsegabeak ta miñak, oñazek eta estirak (tormento) alak eta nekeak ezdigute pakerik kenduko guk nai ezpaldin badegu.

Atsedena gure baitan dago, gure naimena ta adimena Jainkoarenekin elkartzen baditugu.

Pakea ez da geldi egotea: oso bestera baño.

Lana, nekea, arazoa bear degu pakea ondoren izateko, garaipena edo gurenda (biktoria) bai-da pakea. Gere griña makurrak menderatzen, eskuratzen leyalki jardun-ta idoroko arkituko degu pake-saria.

Batzuk (geyenak) uste izaten dute gizonaren barruko kezka, bildurra ta naspilla lagun gaiztoak ekartzen dituztela. Ez da ori egia geyenetan. Iduripen urduriak, biozketa eragabeak (sentimentalismo exajerado), naikeri ergelak, espa txarrak, gurikeri larrigiak, itz batez, gogo askatugiak (espíritu desenfrenado) sortzen dizkio gizonari pakea galtzen duten estualdi oyek.

Gere burua eskuratzen badegu, aldameneko gauzak ere eskuratuko ditugu.

Bere zalekeri geyegiak biltzen ta ukatzen ez ditun gizona, gurarien morrontzapean bizi da.

Esan danez, gizonak berekin iñoren arteko pakea izateko Jainkoaren maitetasuna biotzean euki bear du, apala izan, artera edo zuzena, otxana, eramankorra; ekuru (trankilo) bizi arazo artean, ta bere griña irtenegiak mozten, iñausten jardun eten gabe.

Lan egin urduri jardun gabe, nai izan zalekeri nabar gabe, atara (zelo, enpeño) espa gabe, etxipenean bizi naiz txiro, naiz maki: orra pake-bidea.

PAKEA ERRIAN

Gizon bakoitzagatik oraindaño idatzi deguna, esan diteke erri osoa: gatik ere.

Gizon'etik gizonara alde aundirik ez da izaten naimen gauzetan.

Gizon aundizki bataren griña galdua aski izaten da erri kozkor bat aztoratzeko.

Batzuk alde batera, bestek bestaldera jartzea ez da izaten askotan arrek ala onek itz-bidea daukalako; batek adiskide dulako, besteak ongiña'ri (mesedea) zor diolako, sendiak zerbait aregandik itxaro dulako, berendiak aren aurkaz juaten bildur dalako, abar eta abar baño.

Zalekeria ernetzen da: au, ori ta bestea: inoiz ez edo oso bakar aldietanzentzun-bidea.

Ikusi baño ez dago erritxoetan bide-zabala egin bear danean zenbat eta zenbat iritzi ta naikunde sortzen diran batzuk beren etxe ondotik zear bidea egitea bear izaten dutelako, ta besteak ere bai berenetik.

Erri kozkorretan naspilla gutxi izan bear litzake; askotan ordea uri larritan baño zalaparta geigo ateratzen da. Arek Ala onek nagusi izan bear duan auziak banakatzen ditu auzodiak.

Erri txiki inpernu aundi, askotan agitzen edo gertatzen da.

PAKEA TA LANA

Pake aldia giro ona da lan egiteko. Erriak nasten dira aldekoikeriak indar artzen duanetik.

Berez ez da aski, naikua, erritan paken bizi izatea lanalak aurreratzeko.

¡Zenbat alper aroi bizi dira pake ederrean, ezer egiteke, bezuak antxumatu-ta, iñoren lepotik sabelak betetzen!

Jainkotia, langille izaten da: langilleak txukuna bear du izan, garbia, jaso, eder-zalea.

¿Lekatetxe-tan zikiñ asko ikusten al degu?

Baztarrak txukun garbi ikusten diran etxean esan desakegu, langilleak dirala etxe artakuak.

Pakean bizi dan erria aberasteko langille bear da izan. ¿Lana zertan ordea? ¿Eta aberastutzeko lan egin bear al da?

Galde edo itaun zailak dira abek.

Erri guzitan lan berdiña egiterik ezdago.

Alde batean meatzak (minak) daude; bestean ez; an eitolak (fabrikas de konstrukzion), emen ez; or itxasgintza, arutzago lurgintza.

Nun nola lana egin ikusi bear da. Gizon guziak lan-arazo berdiñetan eleizke jardun; bañan gastetatik mutillak esku-era egokiak ikasi leizke orregatik.

Ikastechetan umeai irakatsi bear litzayezke erbestetan, atzerritan egiten diran lan motak, eta dirudunek, aberatsak eta erria maite duten guziak sayatu ta alegindu urrutitako bizikerak, irabazpideak eren erri-etara ekartzen, egoki autatuak izan ezkeroztik beñepein.

AYERBE'TAR P.

PAKEAREN ONDASUNAK

ETA

GUDAREN GALERAK

(Jarraipena.)

LANGILLE KIDEEN LEYA

Lan egokiak egin ta saltzeko buru askarra bear da iñoiz baño geigo gure aldi aberan.

Euzkadin ezdeizkegu egin oraindik atzerrian egiten diran lan polit asko; ayek bezin trebe ta aditsu izan arren, guk baño merkego ayek egin deizkelako.

Oñati, Azpeiti t'abar, pakean bizi dira: ¿zergaitik erri oyetan jarri ez eitola aundiak?

Burni biderik ezdaukatelako, ta beraz, beste atzerri erritar egiten diran lanakin ezin leyatu lezakatelako.

Bañan, Oñati'n ta abar, ¿nai ta nai ez bezela bear al dira eitalak, bizi izateko?

Lurgintza bakarrik beste zenbait esku-lan ariña (otarra-gintza, oski (zapato) gintza t'abar) easten zayola, ¿ez alda aski *bizi izateko*?

—Bizi, bai, nola nai bizi leike edo bizitzen da, aberasteko eitolak, burni bidek..... bear ordea.

Eta aberastea ¿bearra alda ondo bizi izateko? Erri aberatza, erasogo, aisa, lasai, leun bizi leike. Eta, ¿obe alda gizadientzat erosokeri emeti, bigun, irrist ori?

Gizona lez, erridia aberasten danean arrotu egiten da; elitzake ala bear, baño gaiztotu egiten da. Dirua bear litzake erri-etxeak, ume zurtz etxeak egin ta irazotzeko (sostener), txiro-beartzuak jasotzeko, negarra legortkeko.....

Aberatzak, nai ta ere, ezin deizke estali bear gukiak, jantzi billotsik dagoan oro (guzia), babestu kale gorrian bizi diran guziak.....

Dirua baño premia, errekoa beti, geigo izango da. Josuk esan bai zuan: *pauperes semper habebitis vobiscum*: txiro-beartsuak beti izanen dituzute zuen artean.

Ludi'ko ez bearra, ez izana urritu, gutxitu leike ordea. Salerosketak eitolak, oster-a-bidek (biaje bidek) eta abar asko ugaldu dute errien artean dirua, erosokeria ta bizikera leuna.

ASKO IRABAZTEA BAÑO GUTXI ERAGILTZEA OBEDU GIZONAK

Aulki-sare ederrean eserita baño lurrean jarrita obekigo egon leike Ni beñepein sukaldeko aulkitxoan jarrita pozikago egoten naiz askotan gela-nagusiko katabera (sillon) biguñean baño.

Zer da obe: ¿oyan lo egitea ala sapayan etzatea? Guk noski, oya, zizalua, bigun-aulkiak aukeratzen ditugu: bañan onelako etzantzarik beñere izan ez duten askok, Indi'tarrak, apirkakuak eta abar, ¿ez aldira gogor, osasuntsu bizi beren gorputzai saildurak, ezipenak eman-ta? Eta gure erosokeri biguñak ¿ez al lirake ayentzat aulkeri gogaikarriak?

Ez det esan gura Indi'tarrak, Txina'tarrak illunpean, ikasteke, aurreratzeke eduki bear dirala; baizikan, Europe'tarren jakinduri azkarra, erosokeriz gorputza erkintzeko bakarrik izan bear al-dan.

Belbillen (automobillen) agudo juatek ederki ematen du, atsegin damayo barruan dijoanari, bide ertzean zabar ta zabal dijuan bidartiar..... larria ta autsa..... ere bai.....

Baño ¿zertako tximistak egiten jua tarrantan edo gurtariñan, eldu dan errian zer egiñik ezpada?

Ikusmirak, erestaldiak (musikak)..... atsegin damate bearrak izan ez arren; Donosti'rako eta abar, oste-biltzalle dira, diru-ekarle beraz; bañan, ¿zertako erestaldia jo Aralar txuntxurrean, Aitzgorri'ko gurutz onduan?

Zinematografirik asmatu ezpalute ¿gaizkigo izango al-giñen?

Ez det esaten aurrepan abek, kalte batzuk gizonen gaiztakeriz ekarri arren (ardoak ere Jainkoa'ren odol biurtzeko balio du, mozkortu-ta eriotzak eragiteko ere bai), gizadientzat ongin-laguntzalle aundiak ez diranik. Aurrapen oroa, alde guzirakoa zertako bear al-genduken galdetzen det.

Pakea, lana, zoriona, aurrerapena gizon guzientzat (ezin litekena da ludi ontan) baño ¿ondo al-geundeke orduban? Ez ta ez. Len esan det goragoan, erridiak aberastu aiñean gaiztotu egiten dirala. Egia uts utsa baño ezta. ¿Ez al-ziran aberats Doixlanda, Osterreiz (Alemani ta Austri), Parantze, Engalanda t'abar? ¿Zertako guda gorrian asi ziran ba?

Ludi guztia menderatu nairik zebiltzen batzuk eta bestek; salerosketak zoko guzietaraño ya eraman zituzten. Dirua ta gauzea ugari zebillen erridi batzutan. ¿Zer agitu-gertatu da beraz? Gauz geyagoren bear dirala uste izan dute.

—¿Beste ura bagenduke! eransiz esaten zuten erridi'rik aberatsenak. ¿Zertako ordea *beste ura*? ¿Daukazunaz ez al-dezu aski bizi izateko?

—Bizi izateko bai, bañan nik nai detan bezela bizitzeko ez.

Len goyen jarri detana: eresi, edo zalekeri eragabeak kezka ta abazuza geyegitan sartzen du iñor.

Erri kozkor batetik eldu zan uri aundi batera gizon on bat, eta urian ikusirik zal-gela galantak gauz ederrez josi-ta, zezayon bere buruari: ¡Bai zorionduna naizela ni gauz guzietako bataren bearrik ez delalako! ¡Zertarako diran ere ezdakitalako!

Gauza gutxikin bizitzeko, gatzetatik lastu bear da.

Oraingo giz-asmakundeak bear ez diran gauz asko sortu ditu, ta aberats batzuk eskuarte ona daukatelako leunkeri askotan ibilli baleizke ere (ibilligo ta okerrago erentzak, lenago azpertuko dira-ta) lan-etik ozta ozta bizi diranak ere aberatzak aiña nai dute atsegindu ezdago-kien gauzetan.

Eta atsegin zillegia (lizito) ¿zertan dago?

Aberatza belbillan (automobillan) antzokietan aiña ¿ez al nindeke ni atsegindu eskaluk arrapatzen, arrantza-rako zaletasun itxua izan ezkeror?

Eizean izugarri gozatzen omen dute eiztariak erbiaren atzetik. Ziñisten det.

Nik idazti eder bat irakurtzen, eiztariak erbia arrapatzen aiña gozatu dezaket.

Norbaitek esan dezaidake orain.

Badira ordea gauza batzuk nai ta nai ez bezela gizon guziaz atsegin ematen dietanak. Itxas zabal urdiñ barea begiragarri da ederrez edozeiñentzat.

Gau oskarbian, ortze izar keñularien tartean agertzen dan illargi musu zuriak atsegin eztiya damayo edozeiñi.

Abel gorri guziak, baratz orlegi (berde) loretsuak, mutiko lerdendirain musu-gorri-zuriak ¿zein atsegiñez poztutzen ez du?

Egia bai da gauzak berenez edertasuna bai dutela: bañan, edertasun utzak, gauza eukitze utzak gizona ez du asetzen.

¿Zeinek egon nai luke gau guzian illargi musu zabala begiratzen; eguri guzian itxas urdiñari begiz begi? ¿Nork ibilli nai du beti loretegia, beti tarrantan (automobillan), beti erbiaren atzetik?.

Orain dator jakingarriena.

¿Zertako dira gauzak? Edota, ¿zer nola ibilli bear da gauzak beren bidetik juateko?

Gauz gutxikin bizitzen irakatsi bear zayola umea'ri esan det len. Orain dasat berriz, gauz izanak gure biotza ezdula lotu bear.

Gauz asko euki arren geigo bear badet, gaizki bizi naiz, pakerik ezdazaut (ez det ezagutzen) biotza urduri dabillet.

Gauz gutxi izan arren berriz, egarririk, zalekeririk ezpadet, aske bizi naiz, txiro, baño aberats naimenak ez dauka irrikirik, pakean bizi naiz.

(Jarraituko da.)

AYERBE TAR P.

PAKEAREN ONDASUNAK

ETA

GUDAREN GALERAK

(Jarraipena.)

ATSEGIÑA IÑOIZ BEIÑETAN BILLATU BEAR DEGU

Gizona lanerako jayotzen da, txoria egarako lez. Nekatzen ez dakinak, atsedena zer dan ez daki. Mendi gaillurrera igota gero, ¡bai aize me ziri sendogarria birikatan barrena sartzen dala! ¡bai atsedeen gozoa guritzen dula mendigoizalea!

Lanik ez duna, gaizki bizi da, etxea bete diru euki arren. Geldi egotek gogait eragiten dio lanean oitu danari.

Sua itzaldu egiten da errekirik ezpadauka; zaldizkiak gogortu ukulluan beti egon ezkerero.

Itxas basterrean, kayan beti dagoan ontzia usteldu egiten da; itxas barruan dabillena berriz, geigo iraun. Ur geldian, igelak eta muskerrak, txalburuk eta arrabiok ugari azitzen dira.....

Atsedena ongi da, bear bearrekoa da lan ondoren,

¿Beti atsedetan? ¿Beti atsegiñean? Ez orixe. Noizik beñ kapea edo akeita, garagardoa (zerbeza) gozogo izaten da. Iñoiz berriz Donosti'ra juaten geranok, atsegin biziagoa artzen degu uri polit orretan erabat bizi diranak baño.

Baserritar gizajuak astean bein edo birretan ardoa edan-da, beste askok otoruntza (bankete) ta eztaietan aiña gozatzen du.

¿Zer ikasi bear da esate abetatik?

Pakea dala lan egiteko; lanak dakarrela atzedetik gozoena; ta gure atsegiña gauz ariñetan billatu bear degula, ta ez nai izan maisegi, sarregi atsegindu.

Aberats batek esaten zuan: Lepotik zintzilika daramadan usai gozoko kajatxo onek, jartzen detan aurreneko egun artan bakarrik usai gozoa ematen dit: ondoren'go egunetan bestientzat usai gozoak zabal-tzen ditu nere kajatxo onek.

Neri gogait egiten didaten gauzak besteai begiak atera bear dizte iñartsiz (enbidiz), eta bestiak aspertuta dauden gauzen atzetik nabillni.

Giz-aldea (kapricho) oso aldakorra da, egoaizeak egan daraman lumea baño ariñago.

Zentzuna ezagutu bear degu nagusi ta agintari erakusle ta bidari.

GUDAREN ONDAMEN GALERAK

BIGARREN ZATIA

Euzkel Jai Batzaldi'ko irugarren azalkayak galdetzen dit pakeak zein ondasun ta ongin dakarzkien Gipuzkoa'ko lurgintza, eitolatza (industria) ta salerosketari.

Pakeak zer dakarren ongi ulertzeko, gudak zein kalte ta ondamen egiten dituan ikusi bear degu.

—Etxe ortan sei lagun bizi dira, ta seirak osasun ederrean; norbait tek esaten badit, enaiz asko gelduko (arrituko).

Bañan, aditzen badet sei lagun bizi diran etxe ortetan, lau eri edo gaixo daudela; orduban nere miña ta atsegabea aundigo da osasuna'ren poz ematea baño.

Osasuna ta pakea dauzkagunean, ezer daukagunik etzaigu iruditzen.

Gauzak okerretik obeto ikusten ditugu zuzenetik baño.

¿Gipuzkoarrak pake-aldian zer daukagun?

Daukagun guzia, ta bidez eukiko degun guzia.

¿Gudak zer eta zenbat ondatu, birrindu, duntsitu dezaiguke emen Gipuzkoan? Ba, ori guzia osorik uzten digu pakeak.

Gudak irintxitzen edota galtzen ditu lenbiziko gizonak, bigarren abereak, irugarren etxeak, erri osoak, lurrak, basoak. Urte askotako bizia galtzen du.

Izan diran zorigaiztoko karlista-gudak, ¿zenbat ondamen ta triskan-tza barreatu zuten Euzkadin?

Oraingo-guda tresna ta kañoi indartsuaz, ezin esan ala oker eta eriotz egingo litzake emen. Europa'ko guda izugarriro odoltsu onetan dakusgunez.

Gipuzkoarrak guda beltzean nastuko balira (Jainkoari ezdakiola nai

euzkeldunak gudan iñoiz sartzea: lengoak aski ditugu), erre edo ondatuko lizkiguteke Donosti uri ederra, itxas alboko erri politak Ondarrabi, Orio, Zarautz, Zumaya, Deba.... Ordekan edo zelayan dauden erriak Oñati t'abar apurtuko lituzteke.

Baso ta zuaztiak, ostera, kimatu-ta geratuko lirake urte askotan landara on bat izango elitzaken eran. Ez dago urrik ematerik, gudak, Gipuzkoa maite onetan zein eta zenbat ondamen ekarri lezaizkiguken. Josu Jainkoa, ez det amesik egin nai ere orrelako etorkizun illgarriaz! Pakea, pakea ta pakea izan dezagula, arren gauz guzien lena.

GUDAK NOLA SORTZEN DIRAN

Garai batean antsiña, Erroma'tarrak eta Kartago'tarrak luzaro jardun ziran gudan zeinnek zein menderatu; bañan elkar azpiratu nai zuten, garaila irtetzen zana, osterontzeko ludi guziaren jabe geratzeko. Ludian zein nagusi ta buru jarriko ibilli ziran Erroma ta Kartago.

Orain ere, Doixlanda (Alemani) Iurrez eta Engalanda (Ingalaterra) itsasoz, nagusi geratu nairik batik bat sortu dute guda izugarri au. Kalderon erdaldun idazle bikaiñak zion lez:

Monstruo que de humana sangre
hidrópico se alienta.

1899-garren urtean, Ayan (Olanda'ko uri-burua) egin zuten Leteriak (Los Estados) batzar aundia erridien arteko eztabaidak eta asareak atondotzeko edo antolatzeko. Itz-artuak oderrak ziran; ez asteko gudan iñungo erridirik (naziorik) aurrez jakiñean besteak jarri gabe, dipolomazien arteko auzia erabaki bear zala len, gudan ekiteko, etc. Itzak itz. Anibal'ak Sagunto aitzakitzak artu-ta Erroma'tarrei ekin zien gudan.

1914 Bagilla'ren (Junio) 28, Sarajebo'n (Osterreiz-Austria'ko uria len serbitarrena) eraill zituzten Osterreiz'ko bakaldun-jabegayak (erederos de la Korona Inperial) Pantzeska-Perdiñanda ta bere emaste Hoenbergdukesa.

Nedellko Fxabrinobity (Kabrinobik) irarkarotzak (tipografo) bonbak jaurti ta Gabrilo Printsep (Princep) ikasleak browning iskilluaz su egin zuten. Berenez ala Serbio erridi eraen-buru-goenak (gubernuak) azpitik billau ta erailtza, egin zuten, ez da errez garbi jakiten. Sarajebo-ko (Bosnia'ko uri nagusia) Gotzai (obispo) Stadler'ak esan omen zuan

gero «uri guzia bonbas» beteta zegola, ta Jainkoa'ren mirari aundia bear izango zala orduban ez iltzea Osterritz-Ungari'ko bakaldun (erre-se) jabe-gaya. Beñepein, oraingo guda-aundigi onen susterra edo apukua erailtza orretan didoro (arkitzen da).

Gudara'ko prantauta edo gertau-ta zeuden aspaldi tik erridi aundiak, eta asarratu nai danean, aitzakia errez billatzen da.

Ni nagusi, bestela muturrak ausi, guziak ots egiten zuten.

Engalandak lurbirako itxaso guziak inguratu ta edo beretu ta zeuzkan.

Parantzek (Franziak) lur-barruanberetzako lain ume ez jayotzen, ta alare parantzetarrak juaten ez diran erri osoak (nagusiak izan ezik) beretu zituan Kotxin-Txinan Tonkin, Apirkar Madagaskar eta sartaldeko lurzati aundiak; Apirka ipar-aldean Arjelia beren Oran uri nagusi. Oran España'rena izatea bidego zan iñorena izatekotan.

(Bañan nere ustez, Apirka'ko erri oyek gauz berritan aurreatu azi-ta eren gain, aske bizi bear luteke, bertako semeak buru dirala, eren elea edo izketa ango nagusi dala).

Tunez ere Parantzek; bere estuntzapean dauka, ta Maroki alderdi aundiak ere bai.

Doaixlanda berriz (Alemani) itxaso billa zebillen antsiñatik. *Drang nach osten*; «Sartaldera zabaldu»; India'tarano iritzi bear zutela esanez zebiltzen, Turkia, Persia'tik barrena.

Erridi oyek guziak lapurtzar aundiak besterik ez dira. Atzera bizi diran erriak mendian artu, atzaparra itxatxi, agiñak ezarri. Doixlandak, Osterreiz'ak eta Errusik. iruren artean zatitu zuten Poloni orain eun urte. Elkar ongi artu zuten lapurtzarrak.

Gero'go ordea Errusi asi zanean 1856-garren urtean, Turkia beretu nairik, sortu zan Krimea'ko guda gogorra. Ongi egiña Errusi'ri.

Nere etxera ebasten edo lapurtzen baldin badator, atalagaz bizkarrak ausi, su egin iskilluz (armas) edo akulluz begiak atera egingo nizkioke.

Ez bestien etxera lapurretara joan, au aitzaki ta ura aitzaki.

AYERBE^{TAR} P.

(Jarraituko da.)

PAKEAREN ONDASUNAK

ETA

GUDAREN GALERAK

(Jarraipena.)

ORAINGO GUDAN ZENBAT ETA NOLAKO DIRUTZAK BEAR DIRAN

Alde batetik dabilte Doixlanda (Alemani), Osterren (Austri) eta Turki.

Bestaldetik «elkartubak» deritzanak: Engalanda, Parantze, Errusi, Itali, Serbi, Beljika, Portugal eta Japon. Azkenengo bi abek, urruti daude Doixlan'dik eta jarraldi txikiak eman dituzte ta abek Angola (Apirkan) eta Txin.

*
* * *

Engalanda 1915 Bagilla'ren azkenerako lazkatu edo eralgi (gastatu) ditu 25 milla milloi peseta. (Españak amar milla milloi peseten zorra dauka.)

Edota, milla bat milloi libra esterlina eralgi ditu Engalanda amar illabetean. (Libra esterlina da urre-dirua ta 25 peseta balio ditu berdiñean.)

Mister Asquith, Engalanda'ko ministur-buruak agertu zuan elaldi (discurso) batean egunero *milloi bat et'rdi libra esterlina* bear diruztela guda ontan.

Orrilla'ren 1-tik Bagilla'ren 12-ra bitarte eguneroko lazka (gasto) guzia izan dute 6.660.000 libra.

Bañan (Garrilla'ren 16 idazten ari naiz) geroz geigo bear dute ta

aurki egunero 15 milloi peseta bear izango omen dituzte; iru milloi libra.

Engalandak dirutan, gizonetan baño geigo laguntzen die; Parantze, Beljika ta Errusi'ri.

Doixlandarrak eta Osterreis'tarrak baño askoz geigo eralgitzen du Engalandak bakarrik.

Beste erridi gudalariak zenbat eralgitzen duten guda onetan ez daki oraindik iñork.

Diru-eskatima (presupuesto) aundiak illero eskatzen dituztela erridi gudalariak bai-dager (agiri da) izparringietan (periodikuetan).

Diru izugarritzak eralgitzen dira, len uste etziran aĩnekoak. Ainbeste milloi gizonek ainbeste bear dute janean, kañoyetan..... Ainbeste itxas-ontzi daude..... Egun banaka batzuk baño geigo gudak ezin lezake iraun. Onelako erroldak (kontuak) ateratzen zituzten guda-aurretik gizon adituak. Bañan guzia gezurtatu da guda izugarri onetan.

Milloi'ka gizon illak, millaka-miloi diru lazkatuak (gastatuak) eunka itxas ontzi ondatuak..... eta alare amaika illabete gudarzarrean eramangatik, gizonak, dirua, ontziak berriro sortzen dituzte, ta oste (jende) andana edo samalda izugariak elkarri ekiten diote, batzuk bes-tetara aldartuaz (lanzandose).

Salaberria'tar Joseba Mirena idazle bikañak ziona idazkun (articulo) batean:

«La elasticidad del dinero.— Se está viendo que no hay relación entre la riqueza esencial de un país y sus presupuestos normales. Cuando llega un peligro como el actual, los financieros operan con cifras gigantescas; fluye el dinero, sin saber de donde sale. Esto demuestra que las naciones se habían enriquecido en un grado fabuloso. Desgracia ha sido que la guerra se encargue de esparcir y movilizar toda esa riqueza avara y semioculta!..... Nunca han fallado tanto los números, precisamente en el apogeo de las ciencias estadísticas.»

*
* * *

1871-garren urtean Parantzek eta Doixlandak Bersailles'en egin zuten itunbenan (tratado de paz) Bismark'ak eskatu zizkion Parantze'ri (Thiers eta Fabre'ri) Altsasi ta Lorena'z gaiñera *bost anei unei peseta*. (5 milla milloi peseta.)

Thiers eta Fabre'k erantzun zioen Parantzen etzegola orrenbeste diru, ta begi bustikin otoi egiten (erregutzen) ziotela ezin zitekenik ez

eskatzeko. Ba, bost milla milloi peseta zenbatzen asi izan balira Josu Kisto jayo zanetik, artean oso zenbatu (kontatu) gabe egongo zirala. Ateraldi oni erantzun zion Bismark'ak: «Ba, Berlindi'k dakarret nik gizontxo bat Josu Kisto jayo baño lenagotik diru-kopuru ari zenbatzen asi zana».

Eta itz oek esatekin batera, sar-azi zuan barrena, itunben-gelara Bleichroder bankero judioa, ta onek ederki asko egiztatu zien Parantze'tarrei eskatzen zituzten dirutza oyek gauza gutxi bat zirala Parantzek zeukan diruaren esetzean (konparazioan).

Gañera, Bismark'ak eskatu zituan Metz eta Strasburgo, alegia. Darantze'tarrak antsiaña 23 bider Doixlandan sartu izan zirala-ta, Doixlandak berriz Parantze'ri Jermani'tik botatzen beste okerrik etziola egin.

(D. White. Seven Great Statesmen, zazpi erridi-burudun aundiak.)

*
* *

Gizaldi asko bearko dira oraingo guda ontan egiten diran zorrak estaltzeko.

Goldwin Smith engalandar iztalariak ondo esan zuan bein: «Gudea ez da bukatzen gizonak aspertu arren; etorkizun daudenen lepotik zorrak egin, ta gudak jarraitzen du».

*
* *

Berrogei urte abetan, erridiak guda'rako eralgi duten diruak, amairik (azkenik) ez du.

1815-garren urtetik 1870 bitarte, ludian ezta izan erridirik, dirua eskatzearren, Rothschild losintxatu ta leundu ezdunik (Elber Hubbard). Rothschild'tarrak omen dauzkate orain *amar milla milloi peseta*.

*
* *

Erridiai dirurik elitzayeke eman bear guda-tresnak antolatzeko; bañan ¿nork eta nola galerazi erridi-buru goenak nai dutena egiten?

Parantzen, erridiai diru geyena ematen diena *Pereire etxe bankuduna* da.

Pereire onenak dira: «La Ligne du Nord», «La Ligne du Sur», «La Compagnie Générale Transatlantique», «Le Crédit Mobilier», eta abar.

Benezi'ko (Itali'ko) Kamondo diru-zurrak Turki'ri eman dizkio *bosteun milloi dolar*. (bi milla ta bosteun milloi peseta baño geixago).

Engalandan, Goldschmid eta Stern'ak (London'en bizi dira) dirutzak eman ditue an emen. Portugal erena dute. Errusiñ, Orazio Gunzburg (Petrogrado edo San Petersburg'koa) izan da diru-emallerik larriena.

Guda'rako ontzi kañoi t'abar antolatu bear orrek leporaño zorretan sartu ditu erridiak.

Doixlanda edo Alemani bera, guda au baño len etzan ausarditzen Apirka'ko bere lur mendea Kameron edo Txiña maneatzten (kolonizatzten) diru geyena guda-tresnak eramaten bai zion.

*
* *

1908-garren urtean, Parantzek zor zituan 30.161 milloi franko. Baña zor orren ekoizpena edo interesa ordaintzeko bildurrik etzeukan Parantzek, langillea bai zan ta ausi-urratu aundikoa.

Orain, guda onekin, ¿zertan geratu dira ainbeste artzekodun?

Parantzek guda onen aurretik, urtero eralgitzen zituan alde guzie-tara (presupuesto de gastos) *bost anei unei* (milla milloi) paranko (franko). Gañera, uri-erritan gauza sartzeatik ematen dan petxa edo *octroi'a*.

(Jarraituko da.)

AYERBE'TAR P.



PAKEAREN ONDASUNAK

ETA

GUDAREN GALERAK

(Jarraipena)

Doixlanda'ri etzion on aundirik egin Parantze'ri kendu zizkion *bost milla milloi* pesetak.

Norman Angell'ak dasa (esaten du) «The Great Illusion»'en 1870-1871 Doixlandak gora egin bearrean beraka asi zala ta Parantze izan zuan auziabantza ornitzen.

Bismark berak aitortu zula Reichstag'en (Legeitetxean) 1877-garren urtetik apoita (miseria) ta ez izana ugaltzen zijuala Doixlandan. ¿Nolatan? Diru ura ta beste asko oraingo guda ontarako eralgotzen asi zalako.

Gañera, Parantzek Doixlanda'ri zal-gauz asko bialtzen zion ta atzera Parantze'k dirua itzuli galanki. Diru asko dagonean gauzen jasopena (balioa) igo egiten da, ta langilleak ezin bururik atera. Doixtarrak *bost milla milloi* zituzten bitarte, eralgi egin zuten gogor: gero dirua aitu zanean, irabazbidea urritu ta egiten zuten lana Parantze'tarrak baño merkego eman bear.

Doixlandak 1908-garren urtean 14.362 milloi marko zor zeuzkan (17.500 milloi peseta).

*
* * *

Leterri-Batzak (Unitev States) 1911-garren urtean zeuzkan 4.576 milloi zor ta 765 milla peseta: sso zor txikia beste erridien ondoan.

*
* *

España'ren zorra Parantze'ren iruta'tik bat da; bañan España'ren aberaskia Parantze'ren amarretatik ez da.

*
* * *

Japon'ak, Errusikin guda izan ondoren 1903-garren urtean 1.325 milloi duro zor zituan; edota, 6.625 milloi peseta.

Swititz (Suiza), Dinamarka, Olanda, Belgika, Nornega ta Suezia bizi izan dira aberatsena, guda'rako amesik etzeukaten da.

Jakiña da etxe txikia errezago zuzentzen dala etxe aundia baño: erridi txikia obe da aundia baño.

*
* * *

Lenauko gudak orain arteko pake-aldiak aiña etziran kostatzen.

Orain guda onek oso izutzen gaitu, ta anitzek (askok) eziñ zinistu dute nola jo duten guda madarikatu ontara aunditzat eta arkartzat genduzkanerridiak.

Pakean egon diran garayen guda zuten ames. Diru geyegi, gauza ugarigi zegon, Jainkorik etzan bear iya zeruraño egan gizona juaten zan da, guzia gendukala uste gendun eta guzia mens (palta). Biotzetan Jainko ta geide edo lagun urka maitetasunik etzegon, gorrotoa ta arrokeria baño.

Aditzen det esaten:

¡Bañan egiten jardun ezpalira orrako kañoi oyek, urpeko ta gañeko *dreadnaughts* eta *superdreadnaughts* oyek, egazki edo aeroplano oyek, bonba, meatzki-miña, ametralladora, estandaki-explosibo..... oyek..... etzegon orain gudarik.

Orain ateman (darse cuenta) dute guda'rako bizi izan dirala erridiak pake-garayen.

Adimen galtze guzia, biotza atsegiñ lizunetara limurtutzea, guda da.

Zinematografo, antzesti (teatro) galduak, idazti (liburu) okerrak, lagun gaiztoak, edozein arrokerik guda dagio gizona. ¿Zertarako erabilli gauzak gaitzerako? Zinematografo, antzestak..... gauz onak dira bere-nez eta on-ekasle egokiak zuzen baneatu ezkerro. Bañan, kañoia bezin kaltesuak okertu ezkerro.

—Ondo bizi giñan guda onen aurretik; esan dezateke Parantzen, Doixlandan, Beljikan, Errusin, Oskerreis'en, Serbin.....

Nik uste det gizadiak gaistotuak zeudela on asko egon arren, ta Jainkoak zigortu nai izan gaituzela zentzatu (eskarmentatu) gaitezen.

SUA, ODOLA TA TRISKANTZA

Odessa'ko (Poloni Errusikoa) Gotzai katolikoa dan Tarlowski, izan da Aljeziras,en, 16 Garrillan, Berlin'en erpe edo preso egon-da gero.

Berez, Polonitar dan Gotzai-obispo orrek aitortu du Doixtarrak bi *anei* (milla) txadon eliza baño geigo ondatu ta apurtu dituztela Poloni utsean.

Poloni zorigaitzak ikusi ditu bereak eta bi. Lemberg (Austritik Errusi mugan) eta Bockwa dagon lur-bitartean lenbizi ziran bi milloi lagun edo nortin (persona). Orain eremu biurtu da guzi ori.

Errusi'ko Polonin eldu diran erri, erriska, iri ta uri guziak abarrikatu ta oldartu dituzte Doixtarrak.

«Komunikado ofizialak» guda buru-zuzentzalleen gastiguak eta parteak erri txikitat jotzen dituzte onenbesteko uri abek.

Kalich (50 milla biztanle), Sosnowize (So milla), Lod (450 milla), Barsobia (ya milloi bat bizi-lagun).

Ba eun da geigo onelako uri erre ta austu dituzte guda ontan. Gañera, *amar milloi* erri baño geigo txikigoak.

Lublin, Pietrokow, Kielce, Radom, Kalich, Plok eta Suwalki erki edo alderditako erri guziak zeatu ta apurtu dituzte.

Errusi'ko Polonin 1.500 killometro (ya Donosti'tik Kadiz'a aiña) burni-bide erabal galdu ta ondatu ditute: zubiak, tunelak, gelunak (estaziok)..... guzia suntsitu, birrindu, oldartu, zeatu ta apurtu. Donbrawa'ko ikaz-meatz aipatuak (ainbeste milloi'ri ogeia ematen ziotenak) arrunt ondatu ta alperrik galdu dituzte aldi-luzerako.

Zazpi milloi lagun edo nortin (persona) omen dabiltz Poloni ondatu orretan nun etzanik, zer janik ez dutela, ta egunero *millakak* il-tzen dira gosek.

Poloni alderdiko lur-erloa oso ariña da, ta azpian arkaitz edo ka-reargia dauka.

Ba, lubakik, bonbak, granadak, burni-esik, guda tresnatzar guziak lurra ayenatu dute arkaitz utsa agiri daneraño. Beñ ere edo oso nekez lurgintza'rik egin izango da toki oyetan.

Ondamen aundi izugarri abek nerez ez ditut esan: Pantzeska Melgar idazle ezagunak Paris'tik «La gran victoria» (Beljika'gatik) zeritzan idazkunan azaldu zituan.

Geyegizkoak dirudite galera orrenbestekoak, baña oroitu edo gomutau bear da zeñ nolako guda-tresnak eta tramaukuluak asmatu izan diran azkenengo berrogei urte abetan, ta zenbat milloi gizon dabilten ludian oraindikan ezagutu ez dan aiñeko gudatzar ontan kañoyak asko ta aundiak, bestelako artilleri mota guzirakoak, lubaki sakon luze kotsuak, su-emaille bonbak, itotzeko kiratsak, puzunizko estandaki edo explosibok, eskuz jaustitsen diran bala ta burni-ziri aisekoak, urpekoak, aisekoak..... abar eta abarrak jzenbat eta zelango ondamen, galera, ilkintzak egingo ez dituzte!

(Jarraituko da)

AYERBE'TAR P.



PAKEAREN ONDASUNAK

ETA

GUDAREN GALERAK

(Jarraipena)

ZERTZELADAK «30 MILLOI KARTUTXO ERALGITZEN DITUZTE EGUNERO»

Doixlanda'ko Krupp olaundian ari dan gudari aditu batek esan zion «Information» deritzan aztertzele-batzarrari, Europa'ko guda izugarri ontan erridi-gudagilleak egunero laztutzen edo eralgitzen (gas-tatzen) dituztela *ogeitamar unei* (milloi) *kartutxo* (1915 Jorralla) eta geraz geigo eralgitzen dutela.

Doixtarren artillerik egunean egunean eralgitzen ditu 150 anei (milla) obus, eta erridi-elkartuak (las naciones aliadas) beste onenbeste egunean eralgitzen dutela jo leike.

Ia ba: 10 anei kartutxo egiteko tonelada bat metal bear dalarik, 300 tonelada latoi egunero bear dira alde orretaraz; eta kopuru oni easten zaizkala Doixtarrak eta Elkartuak egunero eralgitzen dituzten 300 anei obus, eltzen da 500 (bosteun) toneladaño metal egunean egunean su egiten gudariak eralgitzen dutena. Beraz

BOSTEUN TONELADA METAL ERALGITZEN DIRA EGUNERO

Itali, guda-nasian sartu zan baño lenagotik ori.

Lazka (gasto) geyegia dala esan leike norbaitek, bañan guda ontan uste etziran gora-bera aundiak agertzen dira.

French guda-buru ingalandarrak Neube-Chapelle'ko jazar izugarrian

ekin zionean, ujola bezela jaurtiki (botatzen) zituan burni-abaztar (metralla) balak eta obusak. Doixtarrak zenen da bulardetzuak diran, atzeraka zijuatzen lubakietatik irtenaz arrapaldan. Alakorik batean, French-en oldarra (inpetu) geratu zan supitoan zergaitikoa iñork etzekilla.

Guda-espandariak (kriticos militares) ezin asmatu izan zuten alako ujol-erazo ura zer zala ta geratu zuten aurreratzeke. Laister jakin zan.

Mr. Lloyd George'k, Ingalandako (London'go) *Komunes* deritzan legetzean aitortu zuan:

«Neube-Chapellen eman dan jazarrean, Transwaal'en bi urte t'er-dian Ingalandarrak Boertzekin egin zuten gudan baño gudakiñ (muni-ziño) geigo eralgi da.»

*
* *

Lengo gudaetatik oraingoetara dagon aldea, eralgitzen ontatik jakin leike.

Doixtarrak gudarako gertu zeuden ala ez eralgitze orretatik atera leike.

Errusin eta Parantzen zein baño zein giza-lerro luze, zabal ugari-goak dauzka Sortalde-Sartalde'tan uneika (milloika) giza-sume iltzeko batere kupira gabe.

¡Itxumenaren begia! ¡Abertzaletasun eragabea, *Deutschland üler alles, Doixlanda guzien gaiñ*, jarri bear dala ots egiñaz, samaldaka, pilloka, andanako, aneikaigizon erio-gorrira daramazkin abertzaletasun zoroa!

Gudakiña (munizioa) bako edo mens (palta) danik Doixlandan, ezta irakurtzen.

¡Ze dirutzak eralgi bear izan dituzten orrenbeste erridiai guda emateko!

Bon Mackensen'ak Galitzi-n Errusitarren aurkaz (kontra) egin zuan oldarren (eraso-aldian) Napoleon'ak gudaldi batean baño gudakiñ geigo eralgi auan.

Kañoiak aneika, ametaratzalleak (ametralladoras) eunka aneika, izkilluak (armak), aneikaz aneika egin-da zeuzkan Doixlandak guda-beltz izugarri au, itu edo apara (blanko, objeto) zutela.

Ingalandak, guda larri au asterako, sei gudari-saill (dibisiones) bes-terik etzeuzkan ermo ornituta: 300 anei gudari bezelatzu.

Errusik bi gudakiñ-ala baizik etzeukan, Parantzek berak, txadon (eliz) ogasunak lapurtzen arreta geigo erabilli zuan guda ontarako kañoi ta gudakiñak gertutzen baño.

Guda aurreratu aînean, gudakiñak egiten ta egiten jardun dira erri-diak, Ingalanda batik bat.

Ingalandak, Japon'dik, Mandchuria'tik zear Errusi'ri bidali dizkio gudakiñasko.

Orain. udaberri-antzera, Ipar-itxasoak izotz leyarra urtu duan ez-kero, Ingalanda'k Errusi'ri gudakiñak bidaltzen dizkio Arkanjel deri-tzan izturitik (portutik).

*
* * *

Ingalanda urduriak, egundo siñistuko etzuan aîña gudazkin egin bear izaten du guda zentoi au ornitzeko.

Artilleri-burnitzan alare, guda asi zanetik (1914'ko Dagonillan-Agostuan) urrengo illean, Agorrean 20 bezela egiten bazuan Ingalan-dak Urrian 90 arañe zegan; Lotnzillan edo Abenduan 156, Illbeltzan 186, Otsaillan 256, Epaillan 388 eta Jorrailan (Apirillan) ya 500.

Zortzigarren illabeterako, Ingalandak artilleri-gintzan *ogeita bost* al-diz lan geigo egiten du. Eta 1915-garren Jorrallan, 720 anei (milla) gizonentzat bear zuan egin orrenbeste burni abaztai. *Bi milloi* gizon lu-bakietan jartzen ditunian, ustea dutenez, ¿zenbatez geigo egin bear ote da artilleri lana?

Parantze'ko Lege-txean irakurri zuan 1909 Uzta'aren 13 Langlois gudari-buruakaditaldi (estudio) eder ederra zenbat tresna ta bala bear ko litzaken erridi-guda nazian argitaratuaz.

Anitzen iritziz, etzegon eiñean (no estaba en lo razonable) Lan-glois'en lan ori. Eioak egin omen zituan (dicen que hizo excesos). Orain ikusi da geyegi ez baño gutxigiz uts egin zula laz (gastu) jotze artan.

AYERBE'TAR P.

(Jarraituko da.)



PAKEAREN ONDASUNAK

ETA

GUDAREN GALERAK

(Jarraipena.)

ZERGATIK BEAR DAN ORRENBESTE BALA TA KAÑOI

Parantzetarrak oraingo gudan agertu duten 75 milimetroko kañoi ospetuak iru anei metrora jaurtitzen du iraitziri edo tiroa, bañan aldatxekoa erabiltzen ezpazayo, beti toki batera ez ditu botatzen obusak: iraitzik iraitzira (tirotik tiroa) 96 metro'en aldea geratzen da. Eta kañoi orik, guziak 75 millimetrokuak izan arren, ez dute guziak berdin botatzen, batzuk arutzaxego, besteak ontzatzatzasego. Iru edo lau metro-dun lubakia sutitsitzeko edo apurtzeko beraz inguru-zabal guzian bota bear dira ba balak eta obusak. Eta geldi dagoan lubaki inguru guzian bota bear badira ainbeste obus, ¿zenbatez geigo batekorik bestera aldatuaz dabillen oste (jende) taldea jotzeko?

Parantze'tarrak 75 onek minutuko 20 obus jaurtitzen ditu, ta kartutxo batek 10 kilo pasatzen ditu. Ordu batean kañoi-saill onek (bateri bakoitzak) 5.000 kartutxo eralgitzen (gastatzen) ditu, edota 50 tonelada kartutxo.

Oraingo kañoi aundientzat gazteluk, naiz ta galtzairu utsez orni-tuak egon, ez dute euspenik, guzia apurru ta zeatzen baidute.

Orregatikan, kañoi txikieagoak dabilte guda onetan, iraitzi (tiro) asko ta crrez jaurtitzekoak. 100 killoko obus batek, 75'ko kañoiak botatzen dituan 10 killoko'ik baño indar geigo dauke ta geigo birrinduko (zeatuko) du jotzen duna, bañan obe dira amarnako 10 obus botatzea abek ere gizonak iltzeko ta lubakiak apurtzeko gai dira ta.

Gañera, kañoi aundiak urrutigora tiroa botatzen dutela beti, ez da egia: esate bateko, 155 kañoi lodiak 6.500 metrora botatzen du tiroa, ta 75 milimetro kañoi ospetuak 8.500 metroraño.

Onelaxen dabilzkite kañoi aisago edo ariñago abek batetikan era bilkorrago ta besterikan iraitzia (tiroa) urrutirago jaurtitzen dutelakoz.

Guda odoltsu onetan, gizona bezin bearra gudazkiña (munizioa), ta eitoletan (parbikatan) obusak egiten bezin bearra, obus oyek arerio-ari botatzeko gudaria.

Gudaskiñaz urri ta eziñ osaturik dabillanak, gizonetan galera aundigoa dauke.

*
* *
*

Parantze ipar aldian, Arras inguruan eman zan Bagillaren (Junio) 16-an jazarraldirik latz itsusienetakoa. Loreto mendiska egaletatik Ecurie inguru bitarte jarri ziran 200 milla parantzetar (armar kilometro zabalean bakarrik) eta bestaldetik aurrez aurre 11 *dibisio* Doixtar, lautik bost gudaroste gorputz, edota berreun milla gizon baño zerbdit geigo. 200 milla parantzetar gizonek bota zitzen beste ainbeste ta geigu alemanai *irureun milla granada*, ta Doixtarrek edo alemanak beste orrenbeste *granada* jaurti zitzen parantzetarrei.

Seireun milla granada erori ziran ba *lareun milla gizon amar kilometro bidean* bakarrik zeuden tokira. Metro laurk iedo cuadrado bakoi-tzedri amabitik amalau gizon zeudela kañoyak iraitzika (tiroka) jardun ziran. Gañera ziran pusillak, ametralladorak, bayonetak, lurpeko minak *ehrapnell'al* (balas betetako obusa; asmatzallearen izena da) eta Jainkoak bakarrik daki beste zenbat tresna-iltzalle.

¡Aze arakintza Souchez ordeka artan egi zana! Eta ¿zenbat aurreratu ziran ausiabantza orretan parantzetarrek? Irureun metro edo lareun besterik ez, eta orrenbeste ere, lur-eusle izugarriak (fuertek) zeuzkenari eskarrak.

Ogeitamarran bat milla gizon ill edo zauritu ezereztat aurreratzeko.

¡Nolako seta irakiña eta zenbat iskillu (arma) mota (klase) dabil-len guda matasa ontan!

*
* *
*

Seireun milla granada jaurti zituan Mackensen gudari-buru Doixtarrek Dunajek lenbizi oldartu zunean (en la primera enbestida) Lenberg artu nairik.

¿Eltxoak aiña ezdu balio gizonak? ¿Ortarako amak aritu semeak azitzen?

Basatiak baño arego dira gizonak: oill (salbaje) odolzale igingarriak, ilkintza besterik maite ez dutela esan leike. ¡Gizadiaren errekgaxoa!

Marne deritzan gudaska latzan, 135 anei (milla) granada jaurti ziztuzten egunean parantzetarrek.

Eta ekiñaldi orokorra (jenerala) eman bear dan egunetik *bi milloi* granada jaurti bearko omen dira Doixtarrai ikara egiteko.

*
* *

Rotterdan'go (Olanda'ko) izparringi batek idatzi omen du (Madrid'go *Iris de Paz*'ek dakarrenez) *eun milla* gizon galdu zituztela parantzetarrek Lille ta Arras'en egin ziran jazarretan.

*
* *

Bagillaren 9-an *Gaceta del Norte*'k iragarri zuan Doixlandak eta Osterreis-Ungarik zeuzkatela beren mende espe edo preso: *milloi bat* eta 93 milla 500 errusitar, 254 milla parantzetar, 24 milla ingelandar, 40 milla belgikar, 50 milla serbitar. Guzira 1.461.500 gizon.

Zenbat doixtar, osterreistar eta turkitar dauzkaten atzemanak espe edo preso *Elkartuak* (Parantze, Errusi'k eta), ez daki oraindikan; baña askotzak izango dira nor ta nai ere.

*
* *

Egazkiak (aireplanok) ere ugari galdu dira, zenbateko kopurua ez dakigu oraindik, anitz dirala baizik.

AYERBE'TAR P.

(Amaituko da.)



PAKEAREN ONDASUNAK

ETA

GUDAREN GALERAK

(Amaya.)

ITXASOZ GUDA

Madrid'go A B C'k dionez New-York'ko izpar-ingi (periodiku) *Vital Issuc'k* iragarri ditu Lorilla'ren aurrena bitarte galdu diran itxas ontzi mota edo enda guzikoak.

Begien aurrean dauzkat ontzi oyen guzien lerroa ta zeetasunak beren zertzelada guzikin baña luzegi ari naizeri bildurrez, enua jartzen.

Bakarrik dasaket (esango det) guzira galdu ditula:

Ingelandak	474.628	tonelada	ontzi.
Parantzek	49.950	—	—
Errusik	42.000	—	—
Japon'ak	14.400	—	—
	<u>580.978</u>	—	—
<i>Guzira</i>			

Ingelandak ondatutako ontzien izen ber berak ipintzen dizte egiten diran ontzi berriai.

Ostea (jendea) geyegi ikaratu ez dedin da ori:

Doixlandak galdu ditu itxasoan	96.790	tonelada.
Osterreis-Ungarik	6.300	—
Turki'k.	9.200	—
	<u>112.290</u>	—
<i>Guzira</i>		

Lorilla'tik arrezkero, itxas galera aundiak izan dira ordea.

IRUGARREN ZATIA. AZKENA.

GUDAK URRITZEKO, ARRAS GALDU EZIN BADIRA ZER EGIN BEAR LITZAKEN

Erridi aurreratuenak ere (Doixlanda t'abar) atzipetuta (engañauta) dabilltz guda lan oetan.

Buru goen eraentzalleak (Gobernuak) esaten dunari ame-ameto, bayetz dagio erri-osteak (jendeak), eta buru-biotzetan pake-garayen, guda sarazi dute.

Antzesti zinema, idazti, izkaldi ta guziak gudaren kaltez jardun bear lirake.

Baña, orretarako erri, erki (region), erresuma, bakalderrri (erreinu) batek eskari zuzena egiten badu eman, ta ez ukatu erri txikia dala-ta.

Lenago, erridiak abenda (arraza) ta ele bereziaz banakatu bear dira erri-menderatuak aske (libre) bizi nai badute.

Kataluña'k, Asturias'ek, Euzkadi'k edo Kastilla'k zerboit bidez eskatzen badute eman dagokiena. Inor baño gaizkigo dago Kastilla lur-gorria besterik agiri eztula. Lagundu Madrid'tik ari.

Baño, baita Euzkadi ta Kataluña'ri ere, bidezkoa eskatzen badute. Kastilla ondo izatekin, guk kalterik ezdaukagu, onura (provehu) baño: Euzkadi ongi agertuta ere, beste inork ezparik ezdu izan bear.

Euskeldunak pakean bizi nai badegu, ez sartu erbesteko arazo nasitan, Anton Kaiku ala Txomin Borabill errege jarri bear dala-ta.

Ezta erlijioaren edo uzkurtzaren izenean, guderan ez degu sartu bear Doipumak (Aita Santuak) berak agintzen ezpadigu (ez dago bildurrik, ez du aginduko). Josukristok ez du inun agindu gudan ibiltzeko, ezta erridietan (Txinan, Indietan) uzkurtza (erlijioa) derrior, gudad sartu bear danik ere.

*
* * *

Pakerik ez da izango erridi-aundien azpian bizi diran abendak (arrazak), aske (libre) jartzen ez diran bitarte.

¿Ungarik, Boemik, Koroazik, Eslabonik beren gain bizi nai dute? Lagundu ba. Irlanda'ri, Kanada'ri, India'ri, Australi'ri, Errodes'i ta Boers'i Iugalandak beren gain jartzen lagundu dien bezela, beste erridiak ere azpikoai (eskatu ezker bidez dana) lagun bezayete. Oraingo Europa'ko guda au Balkanes'etatik sortua da.

¿Nolatan gero ere izan leike pakea amazazpi ele edo izketa egiten diran Osterreis-Ungari mendeko erridi-abendatan? Ele oyek dira aleman, boemi, morabo, eslabon, ruteno, slobeno, serbio, kroata, madg yar, tzigano, rumano, bendo, armenio, turko, italiano ta abar.

¡Alenda *menestra* ederra elkar goxo goxo maite izateko!

*
* *

Langille-ostea (jendea) gudetan sartzen dute Gobernuak eta izparingiak, beartsuari ajolik ez dion auziaz buruak bero bero egin-da.

Doixlanda'ko ingurti (errebista) batek orain urte batzuk agertu zuan idantzeki (grabado) egoki egoki bat. *Ministro* burua edo nagusia ta *Estado'ko ministro'a* sapaillotik (balkoitik) zeira (plaza) begira zeuden oste aundiari (jende askori).

«Ste schreien Moroko, Moroko», deadar egiten du (osteak) ¡Maurotani, Maurotani!, esan zuan erbeste-lurrak nundik irintziko odolten (pentsatzen) ari zan *ministro* buruak, eta *Estado*'kuak erantzuten zion: «Sie schreien Brod, Brod», deadar dagite ¡ogia, ogia!

Lanetik bizi dan oste-jendeari ¿ze ajola dio Apirka-eguerdi'ko iztingadik Doix'tarrenak, Parantze'tarrenak, Itali'tarrenak ala Turki'tarrenak izan? (Norman Angell).

*
* *

Gudarik nai ezdutela esanez, gudarako tresna gertatzen edo prantatzen dituzten errididiak, pakean ez dira luzaro biziko.

Gudaritzarik (soldaduskarik) elitzake bear.

Pake-garayen, guda-liskarrak ikasten ari dira gizonek. Gudarigoa (el militarismo) ¿zertako da ba gudarik nai ezpaldin bada?

¡Zenbat lan atzeratzen ote du gudaritzak! (soldaduskak).

Napoleon'ek zesana (esaten zuna) dasateke oraingo Inderburg, Mackensen, Joffre'k eta: «Ni bezelako gudari (soldado) bati, milloi bat gizonen galtzea, pelapat ez dio ardura».

Pake garayen gudaritasunak eta guda-tresnak beste eralgitze guziak baño iru aldiz geigo jotzen zuten. Urte bákoitzean Europak pake-garayen eralgitzen zuan *12 milla milloi tu bosteun milloi peseta* (2.500 milloi duro). ¡Jolasa da!

*
* *

1.^a Ikastetxetan, ikastolatan, antzokietan, edonun eta edonoiz gulda'ren aurkar jarri bear dira gasteak, eta irakatsi bakoitzari berea ematen.

2.^a Erriko-oste samaldak, batzarrak egin bear lituzteke gudaren kaltez, gosearen kaltez egiten diran lez.

3.^a Piskaka, gudaritza kentzet; sayatu bear dira erkantuak (diputaduak). Pake-garayen, lein-ere gudarik izan eleiken eran antolatu gizardiak. Petxarik ez dedilla eman guda'rako arazoak eraentzeko.

4.^a Erridiak Jainkoa'ren bidetik dabilltzela oker aundigietan erortzeke eta *goyen izan bedi aintza jainkoa'rentzat eta lurrean pakea biotz oneko gizonentzat.*

AYERBE'TAR P.

